


Artea eta zientzia nahasteko prest

Guillermo Roa Zubia

Elhuyar

Arteleku erakundeak zientziaren eta artearen arteko lotura aztertzeko tailerra antolatu du. Gai horren inguruan, maiatzean eta ekainean hitzaldiak, film-emanaldiak eta beste hainbat ekitaldi antolatu dira. Egungo artea zientziarekin uztartzeko bide berrien bila dabil.



Probeta-oihana 2001. Cecilia Andersson.

PROIEKTUARI *CELLCULTURE* IZENA EMAN ZAIO, zelula-kultura euskarara itzulita. Artistek zientzialariek elkarlanean aritzeko interes handia islatzen du tailer-erak. Besteak beste, parte-hartzaileek mota askotako ikerketa-zentroetako

eguneroko lana ikusteko aukera izango dute, han jasotakoa proiektu berriak sortzeko edo, gutxienez, proiektu zaharretan txertatzeko materiala izango da.

Artisten kezka, ordea, ez da horretan geratzen. Arteak zientzian duen eragina, eta alderantziz, ere aztertu nahi dute. Tailerren programan sarrera gisa eskaintzen den paragrafoa oso adie-



Ingurune biziak — Mintegia 2001. Cecilia Andersson.



razgarria da: “2000ko apirilean untxi berde bat jaio zen Frantzian. Eduardo Kac izan zen ugaztun bat genetikoki eraldatzen duen lehenengo artista. Untxia Paris inguruko laborategi batean dago orain. Baina zer esanahi dauka untxi horren jaiotzak komunitate artistikoarentzat?”

Informatika eta medikuntza

Artisten azken belaunaldien helburua euskarri berriak ikertzea izan da. Baina hori ez da soilik gaurko artearen ezaugarria. Historian zehar, artistak espresibiderik berrienak erabiltzen saiatu dira eta horrek askotan zientziaren esparruarekin zerikusia izaten du. Garaian garaikoa, artistek eskuragarri zuten teknologia egokitu dute beti obra-mota berriak sortzeko.

Neurri batean, artistak ikertzaile bihurtu dira, jatorrizko materialak hobetzeko bederen. Esate baterako, margolarien mota guztietako disolbatzaileak probatu zituzten pintura maneiatzeko. Olioaren teknikaren garapenak, adibidez, ate berriak ireki zizkion XV. mendearen erdialdean pintura flandestarrari eta, oso teknika egokia zenez, oso azkar zabaldu zen munduan.

Gaurko gizartea zientzian oinarritutakoa da eta aurreko garaietan baino sendoagoa da zientziaren eta teknologiaren arteko lotura. Egoera horrek zientziaren iraultza suposatu duten

esparruetara bultzatu ditu artistak, genetikara eta adimen artifizialera, batez ere.

Erakundearen tradizioa

CellCulture tailerra ez da Artelekuk antolatzen duen lehenengoa. Erakundeko kideek 1987. urtean hasi ziren horrelako jarduerak antolatzen. Hasierako tailerretan diziplina bakarra lantzen

“garaian garaikoa, artistek eskuragarri zuten teknologia egokitu dute beti obra-mota berriak sortzeko”

bazen ere (adibidez, serigrafia/litografia tailerrak), orain artearen esparru guztietara zabaltzen diren proposamen teorikoetatik abiatzen dira. Gai baten inguruan gara daitezkeen hainbat ekitalditan hartzen dute parte. Esate baterako, 1995. urtean, hirurogeiko hamarkadako arte kontzeptuala lantzeko *Colisiones* tailerra antolatu zuten.

CellCulture


Artelekuko aurtengo tailerraren zuzendaria, 1996. urtekoan partaide izandako

Cecilia Andersson argazkilaria suediarra da. Andersson, argazkigintzan aritzeaz gain, hainbat lankidetzaz egiten ditu, adibidez, *Nu* arte-aldizkari eskandinaviarrean, *Tema Celeste* italiarrean, *Katalog* suediarrean eta Suediako hainbat egunkaritan. Artelekuk argitaratzen duen *Zehar* aldizkarian, Andersson kolaboratzaile berezia izango da udako zenbakian. Tailerraren izenbururako *CellCulture* aukeratu du, izenak zehaztasun handi adierazten duelako helburua.

Hamar partaide elkartu dira Donostian, hemengoak batzuk eta Katalunia, Erresuma Batua, Alemania, Estatu Batuak eta Ukrainakoak besteak. Zaila dena lortu da, zientzian interesa duten artistak toki berean elkartzea, alegia, zehaztasun hori ez baita oso ugaria artearen esparruan.

Tailerrak hainbat ekitaldi-mota izango ditu: partaideentzat antolatutako bisitaldiak, zientziaren eta artearen arteko erlazioaren esparruko artista ospetsuen hitzaldiak eta film-erakusketak. Partaideak, gainera, Donostiako hirian dauden ikerketa-zentro batzuetan egoteko aukera izango dute. Bertan, zientzialarien eguneroko lana aztertu eta bururatzen zaizkien proiektuetan berrikuntzak egin ditzakete.

Film-erakusketak bi taldetan sailkatuta daude. Alde batetik, zientziak filmetan izan duen eragina aztertu nahi da zientzia-fikziozko filmen bitartez, oro har, horiek baitira gizarteak zientziatik



jasotzen duenaren isla. Bost film emango dira, bakoitza bere garaiko ikuspuntuaren adierazgarria dena.

Beste aldetik, zine esperimentalarentzat lekua ere izango da. Erakustaldia-ri *Zine Kalkulatua* izenburua eman

zaio. Egutero zortzi bat film labur aurkeztuko dira, gai berari buruzkoak denak.

Sinbiosiaren lekuko

Tailerren helburua ez da obrak egitea, baizik eta proiektuak garatzen lagun-

tzea. Horrekin batera, zientzialariaren eta artistaren arteko lankidetzari buruzko hausnarketa sustatu nahi da. Artistek askotan azaldutako kezka da hori. Zertan lagun diezaioke zientziak arteari? Eta arteak zientziari?

Lehen galderari erraz erantzun dakioke. Arteak zientziatik eta teknologiatik jasotzen ditu ideiak adierazi ahal izateko euskarri asko. Artisten ideia berriak ere zientzian oinarritutakoak izan daitezke. Bigarren galdera, ordea, ez da hain erraz erantzuten.

Zientzialariak arteaz goza dezake. Baina ez da hori eskatzen den gogoeta. Zer jasotzen du zientziak berak artearekin batera egindako lanetik? Artistek eta zientzialariek filosofia ezberdinekin egiten dute lan eta hori izan daiteke lehen puntu garrantzitsua. Problema bat aurrez aurre hartzean, askotan zientzialariek ez dute orokorra dena ikusten. Ikuspuntu berriak ikerketarako oso lagungarriak suertatzen dira.

Cecilia Andersson - Argazkilaria

“Zientziak ere irudien bitartez xarmatu nahi gaitu”

“Ingalaterran sukar aftosoaren arazoa sortu zenean, egunkari gehienetan ikusten zen irudia birusarena zen. Ordenagailuz egin zuten, noski. Oso polita eta erakargarria zen. Jendeak irudia ikustean ezin zuten ulertu hain gauza politikak nolatan sor zezakeen horrelako gaixotasuna.” Adibide horrekin, zientziak artearen beharra duela adierazi nahi zuen Cecilia.

Zientzia gero eta gertuago dago guztion eguneroko bizitzan. Horregatik, zientzian parte hartzeko jardueretan murgiltzea garrantzitsua iruditzen zaio, norberari dagokion ikuspuntutik. Bere kasuan landu beharreko esparrua artea da.

Artista suediarrek argazkilaritza du ohiko bidea, baina beste hainbat euskarri ere probatu ditu. Gaur egun, adibidez, genetikaren salerosketari buruzko gogoeta egiten duen proiektu artistikoan sartuta dago. Edozeinen ezaugarri fisikoak merkatuzeko aukera emango lukeen web gune bati buruzko obra da. Proiektuari www.dnagarden.com izenburua eman diote eta gaurkotasan handiko bi gai batera tratatu nahi ditu, genetika eta Internet, alegia.

Cecilia biokimikako laborategi batean egon zen zientzialarien lana nolakoa den ikusteko. Gainera, naturaren diseinuaren inguruko azterketak egin ditu eta, horrelako esperientziatik abiatuta, argazki-serie batzuen bitarteko lengoaia asmatu du. Argazki horiek ez dira negatiboekin egin, baizik eta landare-zatiak handigailuan jarriz. Proiektu horretan argazkilaritza “ugaltzeko” bidetzat hartzen da.

Arteak zientziari zer eskaintzen ote dion galderaren aurrean, Cecilia ikuspuntu berria eman digu. “Agiar ez da galdera hori planteatu behar. Artea egiteko prozesua bera ez dago zertan justifikatu.” Dena dela, horrek ez du esan nahi arteak ez duenik zientziarako baliagarria den funtziorik betetzen.

“Zientziak arazo larriak ditu gizartean bere irudiarekin”. Arazo hori dibulgazioan ere islatzen da eta lan horretan laguntzeko artearen beharra dago neurri batean edo bestean. Askotan irudia ezinbestekoa da zientziaren kontzeptuak azaldu ahal izateko. Beste batzuetan, besterik ez bada ere, ilustratzeko. Adibidea sukar aftosoaren birusa da.

Bestalde, artearen ikuspuntua baliagarria da teknologia berrien funtzioa definitzeko. Zientziaren azken helburua jakinduria handitzea bada, jakinduria hori erabiltzeko proposamen asko artetik datoz. “Argi dago. Zientzian parte hartu behar da, gizartearen osagai garrantzitsua delako”.



G. ROA ZUBIA

“dudarik gabe, artea zientziaren hedapenerako tresna ezin hobea izan daiteke”

Baina, dudarik gabe, artea zientziaren hedapenerako tresna ezin hobea izan daiteke. Azken batean, kontzeptuak grafikoki hobeto azaltzen dira formula eta testu hutsarekin baino. Artea, gainera, gizartetik gertuago dago zientzia bera baino. Hori har daiteke artearen ekarpen nagusiztat sinbiosi horretan eta, batez ere, zientziaren dibulgatzaileok arteari ateak ireki beharko genizkioke.